

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2697

63/2024 DEKRETUA, maiatzaren 21ekoa, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren araubideari, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa.

Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenen araubidea arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko urriaren 7ko 422/2013 Dekretuak nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren araubidea ezartzen du, jarduerari ekin aurretik bete beharreko baldintza gisa.

Erregulazio hori Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Legea aldatzen duen maiatzaren 24ko 9/2012 Legearen emaitza izan zen. Izan ere, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 59. artikuluan 4. apartatua eta 60. artikulua aldatzen ditu, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroa sortzen du eta inskripzioa erantzukizunpeko adierazpenaren araubidearen mende jartzea ezartzen du.

Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren araubidea arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko urriaren 7ko 422/2013 Dekretua aplikatzearen ondorioz, zenbait aldaketa egin behar direla ikusi da, dekretua hamar urtez aplikatzearen ondorioz sortutako behar berriei erantzuteko.

Jarduerari ekiteko erantzukizunpeko adierazpenari dagokionez, aipatu Dekretuak xedatutakoaren arabera, administratuak aurrez aurre edo bide telematikoz aurkeztu ahal izango du.

Ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea indarrean sartu zen, eta 14. artikuluan («Administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra») xedatzen duenez, pertsona juridikoek nahitaez erabili beharko dituzte bitarteko elektronikoak administrazio publikoekin harremanetan jartzeko, administrazio-prozedura baten edozein izapidetarako. Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuak 15.1.a) artikuluan xedatzen duenez, «Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekin bitarteko elektronikoen bidez jarri beharko dira harremanetan, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan adierazitako subjektuez gain, honako hauek: a) Enpresaburu indibidualak edo autonomoak, lanbide-jardueran egiten dituzten izapide eta jarduketetarako.»

Horrela bada, aipatutako araudiaren aplikazioaren ondorioz, nekazaritza- eta elikagaigintza-industriek –haien titularrak pertsona fisikoak izan edo juridikoak izan–, jarduerari ekiteko aurretiazko baldintza gisa, modu telematikoan baino ezin dute aurkeztu jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena.

Dekretu hau onartu eta indarrean sartzearekin, errealitatera egokitu nahi da, arazoak eta nahasteak saihestuz; izan ere, arau honen bidez aldatzen den dekretuak eutsi egiten dio bere artikuluetan izapidetze presentzialerako aukerari.

Horrez gain, Estatuak 1054/2022 Errege Dekretua onartu du, abenduaren 27koa, zeinaren bitartez ezartzen eta arautzen baitira Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustiategiaren eta Nekazaritza Ekoizpenaren Informazio Sistema, Nekazaritza Ustiategiaren Erregistro Autonomikoa eta Nekazaritza Ustiategiaren Koaderno Digitala. Nahitaez bete beharreko oinarritzko araua da, nekazaritza eta basogintza sektorea behar bezala kudeatzeko eta antolatzekeo administrazioak garatutako sistema informatikoen multzoa arautzen duena. Erregistroa SIEX informazio-sistemara konektatzea nahitaezkoa da, eta, ondorioz, hori ere jaso behar da dekretuan.

Adierazi behar da dekretu honetan erantzukizunpeko adierazpenaren araubidea arautzeari eta horretarako ezarritako baldintzak betetzeari buruz xedatutakoa betetzeaz gain, egiten duten jardueraren arabera aplikagarri zaien araudi sektorialean ezartzen diren betekizunak eta betebeharrak ere bete beharko dituztela, baita Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoa ere.

Dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitako erregulazio onaren printzipioekin.

Hala, premia- eta efikazia-printzipioei dagokienez, araua justifikatuta dago indarrean dagoen araudia (Abenduaren 23ko 17/2008 Legea, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroa sortzen duena, eta haren 60. artikulua garatzen duen urriaren 7ko 422/2013 Dekretua, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenen araubidea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen) arau hauen mandatueta harmonizatzekeo eta egokitzeko interes orokorreko arrazoiarekin: batetik, urriaren 1eko 39/2015 Legearen mandatueta, Administrazioarekin elektronikoki erlazionatzeko betebeharrei dagokionez, baita izapidetze elektronikorekin lotuta Herritarrei arreta integral eta multikanala ematekeo eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekeo ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan xedatutakora, eta, bestetik, abenduaren 27ko 1054/2022 Errege Dekretuaren mandatueta. Errege Dekretu horrek, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiaren eta nekazaritzako ekoizpenaren informazio-sistema, nekazaritzako ustiategiaren erregistro autonomikoa eta nekazaritzako ustiapen-koaderno digitala ezarri eta arautzen ditu.

Proporzionaltasun-printzipioa betetzen da, lehen aipatutako premiari erantzutekeo beharrezkoa den erregulazioa jasotzen baitu, aurrekoa indargabetzen duen testu berria prestatuz. Segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen da, kontuan hartzen bada arauak printzipio hori indartzen laguntzen duela, koherentea baita Administrazioarekin elektronikoki harremanak izatekeo betebeharrari buruz dagoen araudiarekin, zehazki urriaren 1eko 39/2015 Legearekin, eta orain arte urriaren 7ko 422/2013 Dekretuaren egungo idazketarekin gertatzen ari den segurtasun juridikorik eza saihesten baitu. Dekretu horrek, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenen araubidea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen ditu.

Gardentasun-printzipioa betetzen da, arauaren hartzaileei parte hartzekeo aukera eman baitzaie aurretiko kontsultaren eta entzunaldiaren izapidearen bidez.

Azkenik, efikazia-printzipioa betetzen da proiektu honek ez duelako administrazio-karga erantsirik edo beharrezkoa ez denik ezartzen. Gaur egun dagoen prozedura sinplifikatzen du.

Dekretu hau egitekeo, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru-aldundiak eta sektorekeo erakunderik adierazgarrienak kontsultatu dira.

Arau hau Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorri onartu da.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenaz, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko maiatzaren 21ean egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren araubidea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzea da.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Dekretu hau aplikatuko zaie II. eranskinean jasota dauden nekazaritza- eta elikagaigintza-industria motei, Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen badituzte jardura hauek: produkzioa, fabrikazioa, elaborazioa, eraldatzea, sailkatzea eta ontziratzea, kontrolpeko tenperaturetan biltegitratzea (positiboa edo negatiboa); bai eta aurreko kategorietan jaso gabeko beste batzuk ere.

2.– Dekretu honen aplikaziotik at geratzen dira nekazaritza- eta elikagaigintza-industria hauek: beren produktuen hurbileko salmenta egiten dutenak, zuzeneko salmenta modalitatean, apirilaren 30eko 51/2024 Dekretuaren 4.a) artikulua emandako definizioarekin bat (hurbileko salmentaren bidez merkaturatutako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioei eta trazabilitate-, etiketatze- eta publizitate-baldintzei buruzko dekretu da).

3. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honen ondorioetarako, beheko terminoak bertan emandako definizioaren arabera ulertuko dira:

a) Nekazaritza- eta elikagaigintza-industria: nekazaritza-produktuak edo elikagaigintza manipulatuz produktu berriak sortzeko ekipamendu-ondasunen instalazioak –behar dituzten instalazio osagarriak barne–, enpresa autonomo moduan funtzionatzeko gai dena.

b) Industrien instalazioa: ekipamendu-ondasunen ezarpena –behar dituzten azpiegitura eta instalazio osagarriak barne–, industria-jardura independente gisa funtzionatzeko gai den produkzio-prozesu bat sortzeko.

c) Establezimendua: Eraikin-multzoa, eraikina, eraikin zona, industria-erabilerako instalazio edo espazio irekia edo titulartasun berezitu baten pean erabiltzeko biltegia, baldin eta eraikitzeko edo eraberritzeko proiektua, bai eta aurreikusitako jardura-hasiera, administrazio-kontrolaren xede badira.

d) Ekipamendu-ondasunak: ondasun ukigarriak, manufakturak eta prozesuak egiten dituzten industrien ondarean sartzeko eskuratzen direnak. Zuzenean eta modu iraunkorrean parte hartzen dute produkzio-jardueran, lehengaiak landutako edo erdi-landutako produktu bihurtzeko.

e) Instalaturako industriren aldaketak: aldaketak izango dira honako hauek:

- 1.– Industriaren titulartasuna edo sozietatearen izena edo titularraren forma juridikoa aldatzea: industriaren titulartasuna aldatzea erregistro-fitxako figurari dagokionez, edo sozietate-izena aldatzea edo industriaren forma juridikoa aldatzea.
- 2.– Industria-jardueraren titulartasuna aldatzea, aldi baterako aprobetxamendua lagatzearen ondorioz, errentamendu-kontratu bat edo behar bezala egiaztatutako aldi baterako beste lagapen bat formalizatzearen ondorioz.
- 3.– Industriaren kokalekua aldatzea da (lekualdatzea), prozesuak, ahalmenak edo ekipamendu-ondasunak aldatuta edo aldatu gabe.
- 4.– Industriaren jarduera aldatzea, landutako edo egindako produktuak funtsean aldatu direlako.
- 5.– Ekipamendu-ondasunak aldatzearen ondorioz instalazioen ahalmen osoak edo partzialak handitzen badira, edo lehendik dauden instalazioak aldatzen badira eta, horren ondorioz, eraikitako azalerak gehitu edo handitzen badira, edo indarrean dagoen erregistro-inskripzioan agertzen direnez bestelako industria-jarduera berri bat egiten bada.
- 6.– Instalazioak eta/edo jarduerak handitzea, gutxitzea edo aldatzea, baldin eta industria-establezimenduaren administrazio-baimenetan aldaketak egitea eskatzen ez badute.

f) Industriek jarduerari uztea: Kasu hauek hartzen dira jarduerari uztetzat:

- 1.– Industriaren produkzio-prozesua aldi baterako etetea, gehienez ere hiru urtez.
- 2.– Industriaren jarduera egiteari uztea dakarren jarduera bertan behera uztea.

II. KAPITULUA

JARDUERARI EKITEKO ETA ALDAKETAK EGITEKO BALDINTZAK

4. artikulua.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-industriren jarduerari ekiteko baldintzak.

1.– Aplikatzekoa izan daitekeen araudi sektorialak agintzen duena betetzeaz gain, dekretu honen ondorioetarako, haren aplikazio-eremuaren mende dauden eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturik dauden nekazaritza- eta elikagaigintza-industriek, jarduerari ekin ahal izateko, baldintza hauek bete behar dituzte instalazioari dagokionez:

- a) Industriaren titularra pertsona juridikoa baldin bada, eskritura publiko bidez behar bezala eratuta egotea, sozietatearen nahitaezko estatutuak edukitzea, eta, hala badagokio, haien aldaketak edukitzea, eta horiek guztiak behar bezala zigitatuta egotea dagokion erregistroan.
- b) Alta emanda egotea ekonomia-jardueren gaineko zergan, inskribatu nahi den jardueran aritzeko behar diren epigrafe egokietan.
- c) Industria-mota bakoitzari dagokion teknikari eskudunak idatzi eta izenpetutako jarduera-proiektua edukitzea.
- d) Obra eta instalazioen amaierako ziurtagiria edukitzea, eta bertan adieraztea obrak proiektuak adierazitako moduan egin direla eta proiektuak bete egiten dituela betetzekoak dituen arau guztiak. Industriak instalazioen zati bat jartzen badu martxan, teknikari eskudun batek

egindako ziurtagiria eduki beharko da, eta ziurtagiri horrek azaldu egin beharko ditu instalazio guztiak edo zati bat martxan jartzearen arrazoiak.

e) Jarduera sailkatuen kasuan, jarduera-lizentzia eskatzeko beharrezkoa den dokumentazioa establezimendua dagoen herriko udalean entregatu edo erregistratu izanaren egiaztatzea.

f) Jarduerarako behar den ingurumen-baimena edukitzea, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroan inskribatuta egotea, jarduerak hala eskatzen duenean, bai eta Elikagaigintzako Enpresen eta Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean inskribatuta egotea, jarduerak hala eskatzen duenean.

2.– Jatorri-deitura duten industriek, 1. apartatuan ezarritako baldintzak ez ezik, jatorri-deituraren araubide orokorra eta espezifikoa ere bete beharko dute.

3.– Nekazaritza ekologikoko, produkzio integratuko, artisau-produkzioko eta kalitate-bereizgarriko jarduerak egin nahi dituzten industriek, 1. apartatuan ezarritako baldintzak ez ezik, nekazaritza ekologikoko, produkzio integratuko, artisau-produkzioko eta kalitate-bereizgarriko jardueren gaineko araubide orokorra eta espezifikoa ere bete beharko dute.

5. artikulua.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrietan aldaketak egiteko baldintzak.

Aldaketek, 3. artikuluko e) apartatuan aurreikusitako kasuen arabera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Aldaketa bada industriaren titulartasuna edo sozietatearen izena edo titularraren forma juridikoa aldatzea: industriaren titulartasuna aldatzea erregistro-fitxako figurari dagokionez, edo sozietate-izena aldatzea edo industriaren forma juridikoa aldatzea.

1.– Aldaketa behar bezala erregistratutako eskritura publiko bidez edo dohaintzako, ondare-eskualdaketak, ondorengotzako nahiz titulartasunaren aldaketa ahalbidetzen duen bestelako agiri juridiko pribaturen baten bidez egin izana.

2.– Aldaketa egin izana jarduerarako behar den ingurumen-baimenean: Jarduera sailkatuaren lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena edo ingurumen-baimen integratua.

3.– Aldaketa egin izana Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroan eta, hala badagokio, Elikagaigintzako Enpresen eta Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean ere, inskribatuta badago.

4.– Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga aldatu izana.

b) Aldaketaren ondorioz industriaren jardueraren titulartasuna aldatzen bada, industriaren aldi baterako aprobetxamendua errentamendu-kontratu bidez edo aldi baterako lagapen bidez lagatzeagatik:

1.– Errentamendu-kontratu bat edo aldi baterako lagapen-dokumentu bat formalizatu izana.

2.– Industriaren titulartasuna aldatu izana jarduerarako beharrezkoa den ingurumen-baimenean: Jarduera sailkatuaren lizentzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena edo ingurumen-baimen integratua.

3.– Industriaren titulartasuna aldatu izana Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroan eta, hala badagokio, Elikagaigintzako Enpresen eta Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean ere, inskribatuta badago.

4.– Ekonomia-jardueren gaineko zerga aldatu izana.

c) Aldaketaren ondorioz industriaren kokapena aldatzen bada (lekualdatzea), haren prozesuak, ahalmenak edo ekipamendu-ondasunak aldatuta edo aldatu gabe; aldaketa horren ondorioz industriaren jarduera aldatzen bada, landutako edo egindako produktuak funtsean aldatu direlako; ekipamendu-ondasunak aldatzearen ondorioz instalazioen ahalmen osoak edo partzialak handitzen badira, edo lehendik dauden instalazioak aldatzen badira eta, horren ondorioz, eraikitako azalera gehitu edo handitzen badira, edo indarrean dagoen erregistro-inskripzioan agertzen direnez bestelako industria-jarduera berri bat egiten bada:

1.– Ekonomia-jardueren gaineko zergan beharrezko aldaketak egin izana, horretarako egoiak eta beharrezkoak diren epigrafeetan.

2.– Industria-mota bakoitzari dagokion teknikari eskudunak idatzi eta izenpetutako jarduera-proiektua edukitzea.

3.– Obra eta instalazioen amaierako ziurtagiria edukitzea, eta bertan adieraztea obrak proiektuak adierazitako moduan egin direla eta proiektuak bete egiten dituela betetzekoak dituen arau guztiak. Industriak instalazioen zati bat jartzen badu martxan, teknikari eskudun batek egindako ziurtagiria eduki beharko da, eta ziurtagiri horrek azaldu egin beharko ditu instalazio guztiak edo zati bat martxan jartzearen arrazoiak.

4.– Jarduera-lizentzia eskatzeko beharrezkoa den dokumentazioa establezimendua dagoen herriko udalean entregatu edo erregistratu izanaren egiaztatzea.

5.– Jarduerarako behar den ingurumen-baimena edukitzea, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

6.– Industriaren kokalekuaren edo jardueraren aldaketa egin izana Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroan eta, hala badagokio, Elikagaigintzako Enpresen eta Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean ere, inskribatuta badago.

d) Aldaketaren ondorioz, instalazioak edota jarduera handitu, gutxitu edo aldatzen badira, eta industria-establezimenduaren administrazio-baimenetan aldaketarik egin behar ez bada:

1.– Aldaketak egin izana.

6. artikulua.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien jarduera eteteko baldintzak.

Jarduera uzteak, 3. artikuluko f. apartatuan aurreikusitako kasuetan, baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Industriaren produkzio-prozesua aldi baterako (gehienez ere hiru urte) eteten bada:

1.– Aldi baterako jarduerarik gabe deklaraturik egotea ekonomia-jardueren gaineko zergan.

2.– Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak 29. artikuluan xedatutakoa aplikaturik, baimena eman duen administrazioari jakinarazi izana jarduerak edo instalazioak aldi baterako eten direla, hartutako edo hartuko diren neurriak eta horien denbora-sekuentzia zehaztuz.

3.– Industriari baja eman izana Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroan eta, hala badagokio, Elikagaigintzako Enpresen eta Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean ere, inskribatuta badago.

b) Industriaren jarduerari uztea edo jardueraren baja, hau da, jarduera egiteari uztea.

1.– Ekonomia-jardueren gaineko zergan baja emanda egotea.

2.– Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak 29. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, baimena eman duen administrazioari jakinarazi izana jarduerak edo instalazioen erabilera behin betiko eten direla, hartutako edo hartuko diren neurriak eta horien denbora-sekuentzia zehaztuz.

3.– Industriari baja eman izana Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroan eta, hala badagokio, Elikagaigintzako Enpresen eta Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean ere, inskribatuta badago.

7. artikulua.– Dokumentazioa.

1.– Jarduerari ekiteko erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duten nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien titularrek, 4. artikuluan zerrendatutako baldintzak betetzeaz gain, baldintza horiek jarduera hasi zenetik eta industriaren garapenari edo funtzionamenduari dagokion denbora-tartean betetzen direla egiaztatzen duten agiriak eduki beharko dituzte, eta nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunaren esku jarri beharko dituzte.

2.– Jarduera aldatzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duten nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien titularrek, 5. artikuluan zerrendatutako baldintzak betetzeaz gain, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duten agiriak eduki beharko dituzte, eta nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunaren esku jarri beharko dituzte.

3.– Jarduera uzteko erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duten nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien titularrek, 6. artikuluan zerrendatutako baldintzak betetzeaz gain, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duten agiriak eduki beharko dituzte, eta nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunaren esku jarri beharko dituzte.

4.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, dokumentazioa administrazio honetan edo beste edozein administrazioan entregatu bada, eta berriaz adierazten bada ez dela inolako aldaketarik izan aipatutako dokumentuetan, edo dagoeneko elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen zuzendaritzaren esku badago, edo beste edozein administrazioan egin baditu, interesdunek eskubidea dute aipatutako dokumentuak ez aurkezteko. Elikagaien kalitatearen arloan eskumena duen zuzendaritzak dokumentu horiek kontsultatzeko edo eskuratzeko aukera izango du, interesdunak aurka egin ezean.

5.– Ontziratze eta botilatze jarduerak egingo dituzten industrietan, 4. artikuluan 1. apartatuan ezarritako baldintzak betetzeaz gain, eta betetze hori egiaztatzen duen dokumentazioa izateaz gain, ontziratze edo botilatze makineria egokia dutela egiaztatzen duen dokumentazioa eduki beharko dute.

6.– Kalitate ziurtagiriak izatea nahi duten industrietan aplikatzeko den araudia bete beharko dute eta hori frogatzen duen ziurtagiria eduki.

8. artikulua.– Betebeharrak.

1.– Aplikagarri zaien araudi sektorialean ezar daitezkeen betebeharrak alde batera utzi gabe, egiten duten jardueraren arabera, eta Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek dira nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien betebeharrak orokorrak:

- a) 4. artikuluan jarduera hasteko ezarritako baldintzak, 5. artikuluan jarduera aldatzeko ezarritakoak eta 6. artikuluan jarduera aldi baterako edo behin betiko uzteko ezarritakoak betetzea.
- b) Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunaren esku uztea 7. artikuluan jasotako dokumentazioa.
- c) Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunari aurkeztea 7. artikuluan ezarritako dokumentazioaren artean hark eskatutako dokumentazioa.

2.– Betebeharrak hori betetzeko epea 15 egunekoa da. Epe hori luzatu ahal izango da, ofizios edo alde batek eskatuta, ezarritako epearen erdia gainditu gabe, inguruabarrek hala eskatzen badute eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Luzapen horren baldintzak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri ezarriko dira.

III. KAPITULUA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN ERREGIMENA

9. artikulua.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien jarduerari ekiteko erantzukizunpeko adierazpena.

1.– Dekretu honen aplikazio-eremuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden nekazaritza- eta elikagaigintza-industria guztiek jarduerari ekiteko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar dute haien jarduerari ekin baino lehen.

Jarduerari ekiteko erantzukizunpeko adierazpena nekazaritza- eta elikagaigintza-industriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen establezimendu fisiko bakoitzari dagokionez aurkeztuko da.

2.– Instalatuta dauden nekazaritza- eta elikagaigintza-industrietan 5. artikuluan aurreikusitako aldaketaren bat ematen bada, edo 6. artikuluan aurreikusitako aldi baterako edo behin betiko etetea, industria horiek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar dute, gertatu ondorengo sei hileko epean gehienez.

3.– Erantzukizunpeko adierazpentzat hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen nekazaritza- eta elikagaigintza-industriaren titularrak edo haren ordezkari behar bezala egiaztatutako agiria, non adierazten baitu, bere erantzukizunpean, betetzen dituela 4., 5. eta 6. artikuluetan eta aplikagarri zaion indarreko gainerako araudian ezarritako baldintzak, nekazaritza- eta elikagaigintza-industriako jarduera hasteko, aldatzeko edo eteteko; baduela hori egiaztatzen duen dokumentazioa; dokumentazio hori nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunaren esku jarriko duela, eta konpromisoa hartzen duela 8. artikuluan aurreikusitako betebeharrak betetzen jarraitzeko industriaren garapenari edo funtzionamenduari dagokion denbora-tartean.

4.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-industriak erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duen egunetik aurrera gauzatu ahal izango du bere jarduera. Sei hilabeteko epea igaro eta hasi ez bada, erantzukizunpeko adierazpenak indarra galduko du.

5.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu arren, jardueraren titularra ez dago salbuetsita jarduera hasi ahal izateko erregistro sektorialetan beharrezkoak diren baimen, lizentzia, komunikazio edo inskripzio guztiak izatetik, besteak beste, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean jasotakoak.

6.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendari eskudunak edozein unetan eskatu ahal izango du, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera, 7. artikuluan jasotako dokumentazioa aurkezteko.

7.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkezteak ahalmena emango du dagokion jarduera Estatuko lurralde osoan garatzeko.

Erantzukizunpeko adierazpena Euskal Autonomia Erkidegoko bestelako administrazio publiko batean aurkeztu duten interesdunek beren zerbitzuak eman eta askatasunez kokatu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan, artikulua honetan xedatutako baldintzetan.

Hori horrela izanik ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan xedatutakoa betez, interesdunek nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunari adierazi beharko diote noiz eta zein administrazio-organotan aurkeztu zituen dokumentu horiek. Salbuespen gisa, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunak ezin baditu dokumentu horiek bildu, interesdunei eskatu ahalko dizkie horiei buruzko datuak.

10. artikulua.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea.

1.– Jarduerari ekiteko, jarduera aldatzeko edo eteteko erantzukizunpeko adierazpena nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunaren titularrari zuzendu beharko zaio.

2.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.3 artikuluan eta Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 15.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, banakako enpresariak edo autonomoak, beren lanbide-jardueraren esparruan egiten dituzten izapide eta jarduketetarako, eta pertsona juridikoak, jarduera hasteko edo aldatzeko edo jarduera eteteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, eta dekretu honetan araututako prozedura guztiei dagokienez, bitarteko elektronikoak erabili beharko dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta: <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/>

3.– Jarduera hasteko, aldatzeko edo eteteko erantzukizunpeko adierazpenaren ereduak eta hura betetzeko jarraibideak, prozeduraren fitxa eta espedienterako sarbidea eta ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta»ren bidez egingo dira (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

11. artikulua.– Ez-betetzeak eta jarduera etetea.

1.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-industriei industria-jarduera garatzeko aplikagarria zaien legeriak eskatzen dituen funtsezko eskakizunak betetzen ez badira, betiere jarduera motaren arabera, jarduera eteteko prozedura hasiko da dagokion arduradunak ez-betetzearen berri izan bezain laster, ez-betetzea eragin duen arrazoia zuzentzen den arte.

2.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunak bere kontrol- eta ikuskapen-jardunean jarduera garatzeko aplikagarria den legerian eskatzen diren funtsezko eskakizunen ez-betetzea gertatu dela baina jarduera ez dela eten egiaztatzen duenean, berehala

aginduko du jarduera geldiarazteko, horretarako emandako ebazpenaren bidez, interesdunari hiru eguneko epean entzun ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legea aplikatuz ezar daitezkeen zehapenei kalterik egin gabe.

3.– Jarduera geldiaraziko da, halaber, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunak ikusten badu 9. artikuluan aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpeneko datuetan, adierazitakoan edo erantsitako agirietan, funtsezkoa den zerbait zehatza ez dela, faltsua dela edo falta dela, edo ikusten badu adierazpena ez dela aurkeztu.

4.– Jarduera geldiarazteko ebazpenak beste ondorio bat ere ekar dezake: interesduna behartzea egoera juridikoa dena delako jarduera hasi baino lehenagora itzularaztera, eta urtebetez behintzat gauza berbererako beste prozedurarik eskatzen ez uztea. Jarduerari ezingo zaio berriz ekin jarduera geldiaraztea edo etetea eragin zuen egoera zuzendu arte eta prozeduran jarduten duen nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunak horrela egin dela egiaztatu arte, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legean ezarritakoari jarraituta.

12. artikulua.– Datuen zuzentasunik eza, faltsutasuna edo omisioa.

1.– Erantzukizunpeko adierazpeneko edozein datu, adierazpen edo dokumentutan funtsezkoa ez den zer edo zer ez baldin bada zehatza, faltsua baldin bada edo faltan baldin badago eta horiek aurkeztea ezinbestekoa baldin bada, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunak egoera horren berri emango dio interesdunari, 2 hilabeteko epean zuzendu dezan aipatutako zehaztasun eza, faltsua dena edo falta dena.

2.– Interesdunak ez badu eskatutako zuzenketa egiten emandako epean, jarduera geldiaraziko da, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloan eskumena duen zuzendaritzak horretarako emandako ebazpenaren bidez, interesdunari hiru eguneko epean entzun ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legea aplikatuz ezar daitezkeen zehapenei kalterik egin gabe.

3.– Jarduera eteteko ebazpenak beste ondorio bat ere ekar dezake: interesduna behartzea egoera juridikoa dena delako jarduera hasi baino lehenagora itzularaztera, eta urtebetez behintzat gauza berbererako beste prozedurarik eskatzen ez uztea. Jarduerari ezingo zaio berriz ekin jarduera geldiaraztea edo etetea eragin zuen egoera zuzendu arte eta nekazaritza eta prozeduran jarduten duen nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunak horrela egin dela egiaztatu arte, betiere uztailaren 16ko Industriari buruzko 21/1992 Legean ezarritakoari jarraituta.

IV. KAPITULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA ETA ELIKAGAIGINTZAKO INDUSTRIEN ERREGISTROA

13. artikulua.– Helburuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroak helburu hauek ditu:

a) Eranskinean jasotako industrien jarduerari buruzko beharrezko informazioa izatea.

b) Aurretik adierazi diren industria-jarduerari buruzko informazio-tresna izatea, zerbitzu bat eman diezaien Administrazio Publikoei, herritarrei, eta, bereziki, enpresen sektoreari, alde batera utzi

gabe dekretu honetan eta Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritako konfidentzialtasun-arauak.

c) Euskal Estatistika Planetan eta Urteko Estatistika Programetan zehazten diren estatistika-eragiketak egiteko behar diren datuak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Erakundearen maila operatiboa eratzen duten erakundeei. Apirilaren 23ko 4/1986 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzkoa eta Estatistikaren Euskal Planari dagokion legeak arautzen dituzte haiek, estatistika-jarduerak antolatzen dituzten aldetik.

14. artikulua.– Izaera eta atxikitze organikoa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroak izaera administratiboa du, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloan eskudun den Sailari atxikita dago, eta bakarra da Euskal Autonomia Erkidego osorako.

2.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskuduna izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren arduraduna, eta aipatu administrazio-organoko langileek jardungo dute hartan; izan ere, zuzendaritza horrek kudeatuko du erregistroa prozedura informatikoak erabiliz.

3.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskuduna izango da NEIE erregistroan datuak sartu, aldatu eta baliogabetzearen erantzule bakarra. Zuzendaritza horrek zainduko du bertan jasotako datuak une oro eguneratuta egon daitezela eta bat etor daitezela bere eremuko instalazio guztiekin.

15. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroak dekretu honen 2. artikuluan ezarritako aplikazio-eremuan dauden nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien establezimendu eta jardueren datuak jasoko ditu, industria horien sozietate-izena edo instalazioaren bat Euskal Autonomia Erkidegoan badaude.

2.– Dekretu honen aplikazio-eremuan dauden nekazaritza- eta elikagaigintza-industria eta nekazaritza- eta elikagaigintza-establezimenduei aplikatuko zaizkie kapitulu honetan adierazten diren arauak, bai eta ardoa eta edari alkoholduak ontziratzen eta botilatzen dituztenei ere.

16. artikulua.– Erregistroan inskribatzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroan inskribatzea ez da eratzailerik izango, eta Erregistroko arduradunak ofizioz egingo du, nekazaritza- eta elikagaigintza-entzuen aurkezten dituzten erantzukizunpeko adierazpenetan adierazten diren datu oinarrikoak, osagarriak eta berariazkoak aintzat hartuta.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan kokatzen den establezimendu bakoitzak, erregistro-zenbaki bat izango du.

3.– Era berean, 9. artikuluan adierazten diren erantzukizunpeko adierazpenak aintzat hartuta, Erregistroko arduradunak ofizioz egingo ditu jardueren amaierari eta artikuluko horretan adierazten diren gainerako aldaketei dagozkien idatzoharrak.

4.– Inskripzioa baliabide elektronikoen bidez egingo da, betiere bizkortasunaren, arintasun administratiboaren eta efikaziaren printzipioei jarraiki.

17. artikulua.– Erregistroaren edukia.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroak datu hauek bilduko ditu:

a) Enpresei buruzkoak:

- 1.– Identifikazio fiskaleko zenbakia edo Nortasun Agiria Nazionala.
- 2.– Autonomia Erkidegoak esleitutako identifikazio-zenbakia.
- 3.– Titularra (izen-abizenak, sozietate-izena, eta, pertsona fisikoa bada: sexua).
- 4.– Sozietate-helbidea (helbidea, herria, udalerrria, posta-kodea, lurralde historikoa).
- 5.– Telefonoa, faxa, posta elektronikoa, web-orria eta URLa.
- 6.– Jarduera ekonomiko nagusia (indarrean dagoen Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren kodea).

b) Establezimenduari buruzkoak:

- 1.– Autonomia Erkidegoak esleitutako identifikazio-zenbakia.
- 2.– Izena edo errotulua.
- 3.– Kokalekua (helbidea, herria, udalerrria, posta-kodea, lurralde historikoa).
- 4.– Telefonoa, faxa, posta elektronikoa, web-orria eta URLa.
- 5.– Jarduera ekonomiko nagusia (indarrean dagoen Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako kodea) eta, hala badagokio, garatutako bestelako jarduerak.
- 6.– Industria-mota, eranskinean xedatutakoaren arabera.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroak datu osagarri hauek bilduko ditu:

a) Industriaren titularra pertsona juridikoa bada, bazkideen identifikazioa, sexua, eta sozietate-banaketa eta kapital sozial eguneratua zehaztuz.

b) Lehengai nagusien eta amaitutako produktuen urteko kantitateak. Jarduerari ekiten dioten establezimenduen kasuan, urteko zenbateko horiek jardueraren lehen urteko salmenta-/ekoizpen-planaren arabera aitortuko dituzte.

c) Enplegatuei dagokien dimentsio-adierazlea.

d) Kalitate-bereizgarriak.

e) Azalera eta orubeak (metro koadroak).

f) Kontratutako potentzia elektrikoa.

g) Erabilitako marka propioak.

h) Erregistratutako izen komertzialak.

i) Hala badagokio, establezimendua erregistratuta egotea nahitaezkoa den erregistroen izena eta inskripzio-zenbakia, hala nola, Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen

Erregistroa eta, hala badagokio, Elikagaigintzako Enpresen eta Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorra, edo establezimenduak izan beharreko osasun-baimenak edo Animalien Elikaduraren Sektoreko Operadoreen Erregistroa.

j) Establezimendua borondatez inskribatuta dagoen erregistroetako inskripzio-zenbakiak; hala nola, Euskadiko Ekoizpen Integratuko Operadoreen Erregistroa, Euskadiko Eskulangintza Ekoizleen Erregistroa, Euskadiko Nekazaritza Ekologikoko Ekoizpeneko Operadoreen Erregistroa, eta beste erregistro batzuk.

k) Kalitate-bereizgarrien sistemen ziurtagiriak eta bestelako kalitate-ziurtagiriak.

l) Erantzukizunpeko adierazpenaren aurkezpen-data eta zer organo eskuduni aurkeztu zaion. Aldaketei edo jardueraren eteteari buruzko jakinarazpenen kasuan, jakinarazpenaren aurkezpen-data eta zer organo eskuduni aurkeztu zaion.

m) Baldintzak, ikuskapenak eta zehapenak betetzearen egiaztapenei buruzko informazioa.

n) Eraikinei buruzko datuak, eta, bereziki, haien azalera eta erabiltzen diren ustiatze-sistemak.

o) Instalazioen eta makinen deskribapena eta haien ezaugarriak, unitateak, eta fabrikazio-urtea.

p) Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Ustiatzei eta Nekazaritza Ekoizpenari buruzko Informazio Sistemaren (SIEX) inskripzio-zenbakia.

18. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ardoen eta Edari Alkoholdunen Botilatzaileen eta Ontziratzaileen Erregistroa.

1.– Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 60.1 artikuluekin bat etorrita, Euskal Autonomia Erkidegoko Ardoen eta Edari Alkoholdunen Botilatzaileen eta Ontziratzaileen Erregistroa hartuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroak.

Ardoa eta edariak botilaratzen eta ontziratzen dituzten industriak egongo dira sartuta erregistro horretan.

2.– Ardoa eta edariak botilaratzen eta ontziratzen dituzten industriek, 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzeaz gain, ontzirate- eta botilatze-jarduera horretarako makineria egokia dutela egiaztatzen duen dokumentazioa eduki beharko dute.

19. artikulua.– Identifikazio-zenbakiak esleitzea.

1.– Jarduerari ekiteko erantzukizunpeko adierazpena jaso ondoren, identifikazio-zenbaki bat esleituko zaio establezimenduari Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroko inskripzioarekin batera.

2.– Enpresak dituen establezimenduak beste zenbaki esleituko dira, 3. artikuluko establezimenduen definizioaren arabera.

3.– Establezimenduari esleitutako zenbakiaz gain, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunak identifikazio-zenbaki espezifiko bat emango die ardoa edo edari alkoholdunak ontziratzen edo botilaratzen dituzten establezimenduei jarduera horretarako.

4.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu eta gehienez ere sei hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroko arduradunak enpresari jakinaraziko dio bere inskripzioa eta esleitu zaion identifikazio-zenbakia.

20. artikulua.– Erregistroa sartzeko eta datuak zabaltzeko arauak.

1.– Datu hauek jakinaraziko dira:

a) 17. artikuluko 1. apartatuan adierazitako oinarrizko datuak publikoak dira. Hala ere, titularrek eta interes zilegi eta zuzena egiaztatzen duten hirugarrenek soilik izango dute datu pertsonaletarako sarbidea, Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorrira.

b) Konfidentzialak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroan jasotzen diren gainerako datuak eta espedientean azaltzen diren bes-telako datu teknikoak, eta haien tratamendu informatikoa edo estatistikoa egin ondoren soilik zabaldu ahalko dira, agregatuta.

2.– 17. artikulua 1. apartatuko a) paragrafoaren 1 eta 2 azpiapartatuetan adierazitako oinarrizko datuen kontsultarako irispidea publikoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa egin ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan xedatutakoaren arabera, oinarrizko datu horiek Open Data Euskadi datu irekien katalogoan sartuko dira (URL: <https://opendata.euskadi.eus/inicio/>), eta URL horren bidez eskuratu ahal izango da informazioa.

17. artikuluko 2. apartatuan adierazten diren datu osagarriak kontsultatzeko, aurretik kontsulta-eskaera bat egin beharko dute datu horiek jakiteko interes legitimoa egiaztatzen duten pertsona fisiko eta juridikoek. Eskaera idatziz egingo da, baldin eta erregistroaren antolamenduak horretarako aukera ematen badu, baita bitarteko elektronikoen bidez ere. Edozein modutan, eskaera zehatzak egin behar dira, eta ondo mugatu behar da zer informazio eskatzen den.

3.– Aurreko apartatuetan jasotako Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroko datuetarako irispidea eta publikotasunaren mugak ez dira aplikatuko sekretu estatistikoak bermatutako estatistika-informazioarekiko, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikaren apirilaren 23ko 4/1986 Legearen arabera.

21. artikulua.– Administrazio Publikoaren Organoen arteko koordinazioa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroa, Industria Erregistroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroa (ELESE) elkarreragileak izango dira elkarren artean.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroa elkar-reragingarria izango da Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustiatgien eta Nekazaritza Ekoizpenaren Informazio Sistemarekin (SIEX), abenduaren 27ko 1054/2022 Errege Dekretuan eta hura garatzen duten arauetan xedatutakoaren arabera. Errege Dekretu horrek nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatgien eta nekazaritzako ekoizpenaren informazio-sistema, nekazaritzako ustiatgien erre-gistro autonomikoa eta nekazaritzako ustiapen-koaderno digitala ezarri eta arautzen ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustiatgien eta Nekazaritza Ekoizpenaren Informazio Sistemaren (SIEX) arteko komunikazioa ahalbidetzeko beharrezkoak diren interfazeak eta zerbitzuak garatuko dira.

3.– Sistema informatikoak elkarreragileak izango direla bermatzeko aplikazio informatikoak eta teknologiak eskuratuko dituzte eta hori egin ahal izateko neurriak hartuko dituzte osasunaren gai-alorrean, industriaren gai-alorrean eta nekazaritza eta elikagaigintzako gai-alorretan eskudun diren sailek.

4.– Erregistroetan jasota dauden datu komunetan izaten diren aldaketak hautemateko aukera eman behar du ezartzen den sistema informatikoak. Aldaketak hautematen direnean, erregistroetan sartuko dituzte organo eskudunek beharrezkoak izan daitezkeen eguneratzeak eta aldaketak, eta behar bezala jakinaraziko dira horiek guztiak.

5.– Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren, Industria Erregistroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagai Establezimenduen Erregistroaren (ELESE) arteko elkarreragin-garritasuna nekazaritza- eta abeltzaintza-arloko organo eskudunek kudeatutako erregistroetara ere hedatu ahal izango da, lehenengoan inskribatuta egon behar duten ekoizpen primarioarekin lotutako jardueri dagokienez.

V. KAPITULUA

ZEHAPEN-ARAUBIDEA

22. artikulua.– Zehapen-araubidea.

1.– Zehapenak ezarriko dira Dekretu honetan arautzen diren betebeharrak betetzen ez badira, Nekazaritza eta Elikagaigintzako Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legeak arautzen duen arau-hausteen eta zehapenen araubidearekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legeak xedatutakoarekin bat etorrita.

2.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien arloko zuzendaritza eskudunak egoki irizten dituen ikuskapenak, egiaztapenak eta dokumentazio-eskaerak egin ditzake, baldin eta beharrezkoak irizten baditu jasotako datuen egiazkotasuna eta erregelamendu-baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

3.– Aplikatu beharreko zehapen-prozedura Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa izango da.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.– Aurretiko inskripzioen indarraldia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroan gaur egun dauden enpresa eta establezimenduen inskripzioek balio osoa izaten jarraituko dute. Hala ere, agintari eskudunek, beharrezkoa bada, ofizioz egin beharko dituzte zuzenketak, dekretu honetan xedatutakora egokitzeak, eta, hala badagokio, bertan jaso behar ez direnak bertan behera utzi beharko dituzte, dekretua indarrean sartzen denetik aurrera.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Ardoa eta edari alkoholodunak ontziratuta eta botilartzeko jardueraren inskripzio-zenbakien indarraldia.

Beren tipologia eta adierazpenari eutsiz jarraituko dute indarrean Dekretu hau indarrean jarri aurretik ardoa eta edari alkoholodunak ontziratuta eta botilartzeko jarduerak egiten dituzten establezimenduei esleitu zitzaizkien inskripzio-zenbakiak.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Izapidetzen ari diren espedienteak.

Dekretu honek araututako moduan izapidetuko dira Dekretu hau indarren sartu aurretik hasitako espedienteak. Hori horrela, dagokion erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar dute egoera horretan dauden industriek Dekretu hau indarrean jarri ondorengo hiru hileko epean. Nekazaritza eta elikagaigintzako alorreko organo eskudunak betebeharrak horren berri emango die aurretiaz industria horiei.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 422/2013 Dekretua, urriaren 7koa, Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeita hamar egunera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 21ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

ERANSKINA

I.– Egingo diren jarduerak.

- Produkzioa, fabrikazioa, elaborazioa edo transformazioa.
- Sailkapena edo ontziratzea.
- Biltegitratzea tenperatura kontrolatuarekin (positiboa edo negatiboa).
- Aurreko kategorietan jasota ez dauden beste jarduera espezifiko batzuk.

II.– Industria-mota.

1.– Harakintza-industria. Haragia eta deribatuak, hegaztiak eta ehiza barne hartzen ditu.

Kategoriak:

- a) Hiltegiak.
- b) Zatitze-gelak.
- c) Bizkarrezurra, bizkarrezur-muina eta behi-burua kentzeko baimendutako zatitze-gelak.
- d) Haragi-produktu freskoak edo izoztuak.
- e) Haragi-prestakinak eta haragi txikitua.
- f) Animalia-koipeak eta gantxigorrak.
- g) Hondakinak (odola barne).
- h) Haragia eta haragikiak gazitu eta lehortzea.
- i) Haragi-produktuak.
- j) Urdailak, maskuriak eta hesteak.
- k) Kolagenoa.
- l) Gelatinak.
- m) Haragi-aterakinak eta hidrolizatuak.
- n) Mekanikoki bereizitako haragia.
- o) Haragiz egindako produktu eraldatuak.
- p) Era guztietako haragiak eta haragi-produktuak izoztea.

2.– Arrainaren industria. Arraina, krustazeoak, moluskuak eta deribatuak barne hartzen ditu.

- a) Moluskuak arazteko zentroa.
- b) Ekinodermoen, gasteropodoen eta karramarroen tratamendua.
- c) Arrantza-produktu freskoak (krustazeoak, angulak eta beste espezie batzuk barne).
- d) Arrantza-produktu izoztuak.
- e) Arrantza-produktuak izoztea.

- f) Arrantza-produktuen kontserbak.
- g) Arrantza-produktuen erdikontserbak.
- h) Arrantza-produktu ketuak.
- i) Arrantza-produktu gazituak.
- j) Arrantza-produktu lehor-gazituak eta lehortuak.
- k) Arrantza-produktuen egostegia.
- l) Arrantzako produktuen desizoztea.
- m) Igel-hankak.
- n) Arrantza-produktu pasteurizatu edo egosiak.
- o) Arrainez egindako beste produktu batzuk.
- p) Arrain-olioak edo koipeak.
- q) Beste itsas animalia batzuen koipeak.

3.– Landareen industria (barazkiak, frutak, perretxikoak, tuberkuluak, lekaleak) eta eratorriak.

- a) Barazkiak edo fruta edo perretxiko freskoak.
- b) Olibak eta ozpinetakoak.
- c) Landare-jatorriko produktuen aterakinak.
- d) Landare-jatorriko produktuen kontserbak.
- e) Landare-jatorriko produktu izoztuak edo ultraizoztuak.
- f) Landare-jatorriko produktuen zukuak edo edariak.
- g) Landare-jatorriko produktu lehorrak/lehortuak/deshidratatuak.
- h) Landare-jatorriko produktu zurituak edo zatituak.
- i) Landare-jatorriko produktuen irinak/pureak/pikorkatuak.
- j) Haziak.
- k) Loreak.
- l) Algak.
- m) Landare-jatorriko produktu ernamuinduak.
- n) Tuberkuluak.
- o) Landarez egindako produktu eraldatuak.
- p) Patata frijituak eta aperitiboko landare-produktuak.

4.– Olio eta koipe jangarrien industria.

- a) Oliba-olioa.
- b) Hazi oliodunen olioak.
- c) Beste landare-olio eta -koipe batzuk.
- d) Olioak, haziak eta landare-koipeak fintzea.
- e) Beste animalia batzuen koipeak.
- f) Material koipetsu konposatuak (begetalak edo animaliak).
- g) Ongailu prestatuak.

5.– Esnearen eta esnekien industria.

- a) Esne gordina.
- b) Esne partzialki deshidratatua (lurrundua eta kontzentratua).
- c) Esne kondentsatua.
- d) Esne-hautsa.
- e) Esne hartzitua (jogurta, etab.).
- f) Gazta onduak.
- g) Gazta freskoak.
- h) Gatzatuak.
- i) Esne-gaina.
- j) Esnearen gurinkiak (gurina).
- k) Esne-gazurak.
- l) Esne-gazuraren hautsak.
- m) Gaztanbera.
- n) Esneki frakzionatuak.
- o) Esnez egindako produktu eraldatuak.
- p) Gaztak ontzea.
- q) Gaztak ketzea.
- r) UHT esnea eta esterilizatua.
- s) Esne pasteurizatua.
- t) Esnekiak izoztea.

6.– Zereal, irin eta deribatuen industria.

- a) Irinak.
- b) Semola eta semolina.
- c) Almidoidun beste produktu batzuk.
- d) Ale zurituak, perlatuak, xehatuak, grañoiak eta gofioa.
- e) Zerealak malutetan eta zabaldua, beste osagaiekin edo gabe.
- f) Zerealen zahia/zuntzak.
- g) Arroza.
- h) Arroza ez diren zerealak.
- i) Sasizerealak.

7.– Animaliak elikatzeko produktuen industria.

- a) Haztegiko animalientzako janariak.
- b) Lagun egiteko animalientzako janariak.
- c) Animaliak elikatzeko azpiproduktuak.
- d) Animaliak elikatzeko beste produktu batzuk.

8.– Okintzako produktuen eta janari-pasten industria.

- a) Ogia.
- b) Janari-pastak.
- c) Pastelgintza, opil eta gozogintzako produktuak.
- d) Produktu erdilanduak.
- e) Arrautzeztatzeko prestakinak.
- f) Galletak.
- g) Okintza-produktuak izoztea.

9.– Beste elikagai batzuen industria.

- a) Azukrea.
- b) Beste azukre batzuk.
- c) Eztia.
- d) Ziropeak.
- e) Karameluak, gozokiak, konfiteak, garrapiñatuak, erregalizak eta txikleak.
- f) Turroiak eta mazapanak.
- g) Eztiaren ekoizpenarekin lotutako produktuak.

- h) Eztiarekin edo azukrearekin egindako produktuak.
- i) Kafea, beste elikadura-osagai batzuekin edo gabe.
- j) Kafe-aterakina.
- k) Kafe-suzedaneok.
- l) Tea, beste elikadura-osagai batzuekin edo gabe.
- m) Beste landare-espezie batzuen aterakin disolbagarriak.
- n) Infusioetarako beste landare-espezie batzuk.
- o) Kakaoa eta deribatuak, beste elikadura-osagai batzuekin edo gabe.
- p) Txokolatea eta deribatuak, beste elikadura-osagai batzuekin edo gabe.
- q) Txokolate-suzedaneoa.
- r) Infusio likidoak.
- s) Gatza eta gatzuna.
- t) Ozpinak.
- u) Ongailuak eta espeziak.
- v) Ongailu prestatuak.
- w) Espezia-suzedaneok.
- x) Janari prestatuak.
- y) Saldak, haragi-saldak, zopak eta kremak.
- z) Saltsak eta bestelako gozagarri eta gatzozpinak.
- Aa) Elikadura-prestakin kontzentratuak, berehalakoak, etab.
- Bb) Gosaltzeko prestakinak.
- Cc) Aperitibotarako beste produktu batzuk.
- dd) Erabilera industrialeko tarteko elikadura-prestakinak.
- ee) Bularreko haurrentzako prestakinak eta jarraipen-prestakinak.
- Ff) Zerealekin egindako jakiak eta haurrentzako jakiak.
- gg) Erabilera mediko berezietarako elikagaiak.
- hh) Elikadura-osagarriak.
- ii) 2015/2283 (EB) Erregelamenduaren esparruan baimendutako elikagai eta elikadura-osagai berriak.
- jj) Pisua kontrolatzeko dieta osoaren ordezkioak.
- kk) 853/2004 Erregelamenduaren arabera lortutako beste produktu batzuk.

ll) Intsektuak.

mm) Lurreko barraskiloak.

nn) Barraskiloak edo igel-hankak erabiliz eraldatutako produktuak.

oo) «Gallus gallus»en arrautzak.

pp) Arrautza produktuak.

qq) Beste espezie batzuen arrautzak.

rr) Arrautza likidoa.

ss) Arrautzez egindako produktu eraldatuak.

tt) Esnekiz eginda ez dauden izozkiak.

uu) Koloragarriak.

vv) Edulkoratzaileak.

ww) Entzimak.

xx) Aromak (ke-aromak izan ezik).

yy) Gehigarrien, aromen, entzimen edo laguntzaileen nahasketak, beste osagai batzuekin edo gabe.

Zz) Gehigarriak, aromak, entzimak edo laguntzaile teknologikoak.

Aaa) Ke-aromak.

Bbb) Koloragarriak eta edulkoratzaileak ez diren gehigarriak.

Ccc) Entzimak ez diren laguntzaile teknologikoak.

Ddd) Mikrobio-kultiboak.

10.– Edarien industria.

a) Ur mineral naturala.

b) Iturriko ura.

c) Edateko ur prestatua.

d) Hornidura publikoko ur prestatua.

e) Izotza.

f) Itsasoko ura.

g) Edari freskagarriak.

h) Hortxata.

i) Edari alkoholduen eta alkoholgabeen nahastea.

j) Beste edari alkoholgabe batzuk.

- k) Ardoa.
- l) Ardozko aperitiboak eta edari mikatzak.
- m) Sagardoak eta madariardoak.
- n) Garagardoa.
- o) Ardoaren deribatuak (sangria, etab.).
- p) Ardozkoak ez diren aperitiboak eta edari mikatzak.
- q). Beste edari alkoholdun batzuk.
- r) Elikagai-erabilerako alkohol etilikoa.
- s) Ardo aparduna.
- t) Edari destilatua.
- u) Edari alkoholgabetuak.

11.– Tabako-industria.

12.– Egurraren industria (ez dira egurraren industriaren parte izango egur tropikala edo Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoen espezieren bateko egurra eraldatzen duten enpresak).

- a) Basoen aprobetxamendua: mendian egurrak moztea eta garraiatzea.
- b) Egurraren lehen eraldaketa: azala kentzea, zerratzea, lehortzea edo birrintzea.
- c) Erabilera zuzeneko produktu landuak egitea egurrarekin.
- d) Beste egur-produktu batzuk.

13.– Basoko produktuen industria.

- a) Perretxikoak eta basoko fruituak.

14.– Energia berriztagarriak lortzeko biomasaren eta lehengai organikoaren industria.

15.– Ongarrien industria.

- a) Simaurrak, ongarriak, substratuak edo landareen nutriziorako produktuak.

16.– Hainbat produktutarako hozkailu-biltegia.

17.– Nekazaritza edo elikagaigintzako beste industria batzuk.